

URTEA 10 ARGAZKITAN (II)

Maialen Lujanbio eta Leo Messiren bideek bat egin zuten berriz urte amaieran

Asier Aiestaran

Egun gogoangarria izan zen abenduaren 18a. Euskal Herriko etxe askotan borroka sortu zen Bertsolari Txapelketa Nagusiko edo Munduko Futbol Txapelketako finalaren artean hautatu behar horretan. Leo Messiren Argentinak Munduko Kopa hirugarren aldiz altxatu eta minutu gutxira jantzi zuen Maialen Lujanbiok bere hirugarren txapela.

> Euskadi sariak

Historian lehen aldiz, Euskadi Literatura sarietako irabazle guztiak emakumeak izan dira 2022an. Euskarazko Literaturan Uxue Apaolaza izan da saritua, “Bihurguneko nasa” lanarengatik; Gaztelaniazko Literaturan Edurne Portelaren “Los ojos cerrados”; Itzulpen-gintzan Koro Navarro eta “Fiesta. Eguzkia jaikitzen da”; Haur eta Gazte Literaturan Leire Bilbaoren “Barruko hotsak”; Ilustrazioan Maite Muterriaren “Irrimola”; Euska-

razko Saiakeran Irati Jimenezen “Begiak zabalduko zaizkizue. Literaturari buruzko elkar-riketa bat”; eta Gaztelaniazko Saiakeran Teresa Maldonadoren “Hablemos claro” izan da irabazlea. «Atzera begirakoa egiterakoan, garai hauen ezaugarri bat izango da emakumeen presentzia eta emakumezkoak egiten ari diren eta egin dioten ekarpena», aipatu zuen sari banaketan Bingen Zupiria Kultura sailburuak.



Idoia ZABALETA | FOKU



Jagoba MANTEROLA | FOKU

> Oinatz Bengoetxea

Oinatz Bengoetxearen agurrak esku pilotaren urrezko belaunaldi bati amaiera ipini dio. Baina leitzarrarena ez da ohiko agurra izan. Aurrelariaren ametsa debutatu zuenetik 20 urte betetzen ziren egunean Leitzan bertan, herriko zaleen aurrean, jokatzeko agurtzea zen. Baikok, ordea, ez zion aukera hori eman eta otsailean jokatu zuen Labriten bere azken partida enpresa “handien baitan”. Baina Oinatzek ez zion bere ametsa betetzeari uko egin, eta bere ibilbidea udazkenara

arte luzatu zuen, herri txiki-tan afizionatu mailako pilotari-ekin edo maila apalagoko beste profesional batzuekin neurketa mordo bat jokatzeko, bai Euskal Herrian eta bai Euskal Herrikan kanpo. Azkenean, agurra urriaren 15ean iritsi zen Leitzako plaza- n, azken partida Asier Garcia bere lehengusuarekin jokatzeko Xala eta Barriolaren aurka. Eguraldi bikainarekin, sekula-ko jendetza bildu zen agurraz gozatzeko, eta ondorengo baz- karian ere 800 bat lagunek hartu zuten parte.



Iñigo URIZ | FOKU

> Maialen Lujanbio

Pandemiak hala behartuta, urtebeteko atzerapenarekin jokatu da 2022an Bertsolari Txapelketa Nagusia, eta txapela Maialen Lujanbiok irabazi du hirugarren aldiz. Irailaren 24an hasi zen lehia, 42 bertsolarik hartu dute parte eta finala abenduaren 18an iritsi zen lehen aldiz Nafarroara, Nafarroa Arena pabiloira.

Gainera, finalera emakume bat baino gehiago sailkatu di-

ra lehen aldiz, hiru zehazki: Maialen Lujanbio, Alaia Martin eta Nerea Ibarzabal. Nola bait, azken urteetan oinarrian izan den aldaketa gailurrera ere iritsi dela esan daiteke, beste datu batek erakusten duenez: lehen faseari ekin zioten 14 emakumeetatik 10 bigarren faserako sailkatu ziren.

Lujanbiok 2.240 punturekin irabazi zuen, Amets Arzallus izan zen bigarren 2.166rekin.

> Argentina

Argentinak hirugarren aldiz irabazi du Munduko Futbol Txapelketa. Seguruenik munduan jende gehien mobilizatzen duen kirol ekitaldia Qatarren ospatu da urte amaieran eta zale askok eta askok espero zuten argazkiarekin amaitu da: Leo Messik bere ibilbide arrakastatsua falta zitzaien garaikur nagusi bakarrarekin borobildu du.

Txapelketa gorabehera askorekin hasi zen. Zelai barruan Argentinak berak lehen partida galdu egin zuen, esaterako, Arabia Saudi bezalako selekzio apal baten aurka. Zelaitik kanpo asko hitz egin zen Qatarrek errespetatzen ez dituen giza eskubideen inguruan.

Lehiaketa aurrera joan ahal, ordea, interesa kirol arloan zentratzen joan zen. Maroko

izan zen, adibidez, protagonista nagusietako bat, ezustean Espainia eta Portugal kanporatu eta finalerdietaraino helduz. Azkenean Frantziak utzi zuen finaletik at. Kroaziak ere eman zuen ezustekoa, Brasil, favorito nagusietako bat, final-laurdenetan kaleratuz.

Finala 3-3 amaitu zen luzapenean eta penaltietan Argentina gailendu zen.



Franck FIFE | AFP PHOTO

Otsailaren 4an

PLAZA HUTSA

Burlatako Kultur Etxean

Izen ematea >



